

AURKEZPENA

Gaur egun, garraioa ezinbestekoa da, bizitzan egiten ditugun gauza gehienak guregandik urrun daude eta, esate baterako, lana, eskola, osasuna... Gainera, gehienok oso ordutegi betea dugunez toki batetik bestera azkar mugitzea premiazkoa da, eta jende askorentzat, nahikoa diru ez dutelako, edo gidatu ezin dutelako, garraio publikoa ezinbestekoa da egunero dituzten eginkizunak gauzatzeko. Kontua da, EAEn, ez dagoela zerbitzu hau herritarrei modu eraginkor batean eskaintzen dion baliabiderik: informazioa bilatzeko, web-orrietan begiratu behar da, baina askotan behar duguna aurkitzeko hainbat zailtasun sortuko zaizkigu. Jende askok GoogleMaps erabiltzen du, baina informazio hau askotan ez da zuzena edo zaharkituta dago.



Gabezi hori buruan izanik, guk, ASI G taldeak, (Aiur, Martin eta Asierrek), MugiFast izeneko aplikazio bat sortu dugu, EAetik zehar garraio publikoa errazteko asmotan: Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian garraio publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak kontuan izanda, edozein puntutik edozein puntura modu eraginkorrean iristeko ibilbidea erakusten duen programa, informazio eguneratu eta fidagarriarekin.

Mundu hau beti mugimenduan dago, eta modu batera edo bestera gu ere harekin mugitu behar garenez, tresna hau sekulako laguntza izan daitekeela dirudigu.